



MUSIKA

Egur handiagoa



ASKA NAZAZU

ZTAH

AUTOEKOIZPENA, 2020

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Ztah taldeak aurrera egin du bere proposamenarekin. Lehendik ere bere doinuak itzelak baldin baziren, egurra latza, orain egur handiagoa. Taldeak *egurrarkore* gisa definitzen du bere musika, oso definizio egokia, zinez, kantak entzunez gero.

Deathcore espirituan sakondu dute, bide horretatik aurrera egin dute. Thrash metal, death metal, groove metal eta hardcore ukituekin jantzi dituzte kantak. Taldea boskotea da orain, bi gitarraistarekin, eta horri esker haien doinu iluna, gordina, astuna, basatia eta bortitza sendotu egin dute, indartu. Iñaki (ahotsa), Jon (gitarra), Gixer (gitarra), Bruno (baxua) eta Oier (bateria) dira Ztah taldeko kideak, gaur egun.

Ekoizpen lan ona egin dute eta doinu potoloa gauzatu dute, oso trinkoa. Mol-

daketak ederki eginak daude, gitarren marrazki beldurgarriekin, feedback eta bestelako zaratatxoekin, eta laino gisako pasarteekin.

Kantak zartako gisakoak dira. Erritmo biziak eta astunak daude, erritmo al-daketak, kontradenborazko notak. Gitarra zorrotzak dira, eta ahots urratuak, oihuak eta garrasiak entzun daitezke, baxuak eta bateriak osatzen duten oinarri erritmo mardularekin batera.

Aska nazazu izenburua ezin ego-kiagoa da bizi dugun garai honetarako, nahiz eta pandemiak eragindako larrialdi egoera baino lehen erabakita izan. Kanten bidez mezu askatzaileak transmititzen dituzte, askatasunaren aldeko aldarria, gatibatzen gaituzten kateak apurtzeko, lepoa itotzen digun soka askatzeko, natura eta ama lurra

zaintzeko, sustraiak ez ahazteko, denboraren zama edo pisua arintzeko edo gainditzeko. "Aska nazazu beldur hone-tatik, nire arima zer bilakatuko ote da?" esaten dute diskoaren izenburu bera duen kantan.

Aipagarria da Mikel Laboaren *Gure bazterrak* kanta ezagunaren bertsioa. Bixia, berezia, haien erara moldatu dute, haien estilora.

Taldeak hamar urte bete ditu, 2010. urtean sortu baitzen Donibane Ziburu-ko gaztetxean, eta ibilbide ederra egiten ari dira, urratsez urrats, kantaz kanta, diskoz disko eta emanaldiz emanaldi. 2011n EP edo iraupen laburreko disko bat kaleratu zuten, 2016an *Inorabidea* lehen lan luzea, eta *Aska nazazu* lan berriarekin beste urrats bat aurrera egin dute. ●